

## ZERGAITIK EZ?

Badagozala, uste dot, egoera, jarrera... asko, itxuraz edo gure ondo oinarritu bako ustez, lotu ezinak diranak baina berez, edo borondate onez, lotugarriak diranak.

Milaka adibide jarri daitezke:

Fede ezbardinak dabezanak, edo fededuna eta fede bakoa adiskide handi izatea. Zergaitik ez?

Politika ezbardinak dabezanak alkarrekin ibiltzea. Zer da-la-eta ez?

Herri batekoak eta bestekoak, enda ezbardinetakoak, lagunarteko izatea. Zerk galerazoten dau?

Inoiz hasarre izan diranak, arerio handi izatera heldu diranak... adiskide minak izatea. Zergaitik izango da ezina?

Jokera bateko eta besteko, jokera kontrajarriak dabezanak, batera kokatzea. Zerk galerazo leike?

Alkar ulertu ezina izan dabenak lagun handi izatera bihurtzea. Ameseta hutsa ete da?

Beste adibide asko eta asko gehitu geinkez. Ziur nago zuk, irakurle, beste adibide asko jarri daikezuzala eta nik jarritakoak baino egokiagoak.

Lotu ezinak dirudien horreek eta beste asko lotzea ez ete litzateke guztion onerako? Orduan, zergaitik ez?

*Juan Bizente Gallastegi*